

“Gazteen %18,7a, hau da, 24.000 gazte, langabezia daude Euskadin”

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 9a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteen egungo egoera mahai-gainean jarri du: “2017ko lehen hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteen %18,7a langabezia dago, hau da, 24.000 gazte”, adierazi du Maialen Olabek, EGK-ko presidentak. Horrek “bizi proiektua egitea zailtzen” duela salatu du Olabek, nahiz eta onartu “azken hamarkadan lehen aldiz” datu horrek ez duela “langabezia-tasa orokorra, %11,4, bikoizten”. Hala ere, legebiltzarkideei “lanean jarraitu eta hausnartzeko” eskatu die oraindik asko egiteko baitago “enpleguaren kalitatean”. Era berean, lanaldi partzalean “gero eta gazte gehiago” daudela salatu du EGK-ko presidentak, “batez ere emakume gazteak”. Egoera sozioekonomikoarekin amaitzeko, besteak beste, Euskadiko gazteok emantzipatzeko ditugun oztopoak azpimarratu ditu Olabek: “18 eta 34 bitarteko pertsonen soldataren %63,8a bideratu behar dute alokairurako; 18 eta 24 bitartekoek %92,3a. Nazioarte mailan aholkatzen den %30a izateko soldata %112 igo beharko litzateke”, gogorarazi du EGK-ko presidentak.

Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean egindako agerraldian **Berdintasun lan-arloak aipamen berezia izan du**. Olabek adierazi duenez Gaur8 lantaldeak eta Berdintasun lan-arloak garatutako Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa “34 aldiz aktibatu behar izan dugu 2016ko ekainetik 2016ko abendura 42 emakume gazte erasotu dituztelako”. Era berean, erantsi du “erasotzaileen %23a gutxienez” gaztea zela eta salatutako kasuen “%90ean 1/2004 Legeak” ez zituela emakume gazteak “genero indarkeriaren biktimatzat hartzen”. “Emakume izateagatik jasandako eraso oro ulertu beharko litzateke Indarkeria Matxista bezala”, aldarrikatu du EGK-ko presidentak.

Horretaz gain, Olabek **2016an egindakoaren memoria** aurkeztu du. Lan-arloen azalpen orokorra egin du, besteak beste: Ibilbide Moreak txostena, gazteoi eragiten diguten gaien harira egindako adierazpen publikoak (protokoloak, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna, Memoriaren Eguna, etab.), Bake eta Bizikidetzaren lan-arloak hiru urtez egindako ibilbidea laburtzen duen ‘Gazteok eta bakea’ liburuxka eta gazteen ideia, eskari eta proposamenak biltzen dituen *Gazteen aukera* dokumentala.

2017an “esfortzu berezia” Berdintasun lan-arloan

Legebiltzarkideen aurrean EGK-ko presidentak elkarten plataformaren **2017rako lan-ildo nagusiak** azpimarratu ditu. “Esfortzu berezia egingo dugu Berdintasun lan-arloan”, aurreratu du Olabek. Besteak beste, “RECacciona bideo lehiaketan Berdintasun ezari buruzko iritziak” batu nahi direla eta “Indarkeria Matxistaren aurkako kanpaina” udari begira. Horretaz gain, “astialdiko elkarte eta gazteen” beharrei erantzuteko hiru gida (jada kaleratutako Sexualitatearen Koloreak eta aniztasun funtzionala eta drogomenpekotasuna landuko dituzten beste bi) eta gazteontzat “Lan Egokia zer den azpimarratu nahi duen kanpaina” izango dira EGKren gakoetako batzuk.

Azkenik, **EGKren funtzioa gogorarazi die legebiltzarkideei**. “Ganbera honetan adostutako lege baten eskutik jaio ginen eta 30 urtez sortze-arrazoi horien ildotik egin dugu lan: gazteen, gazte-elkarteen eta erakundeen arteko interlokuzio eta zubi lana egitea”.